



# Vestalak eta hauen eragin publikoa K.a. I. mendetik K.o. I. mendera

GRADU AMAIERAKO LANA



Ane Sainz de la Maza Alonso  
Tutorea: Elena Torregaray Pagola  
HISTORIAKO GRADUA, 4. MAILA  
IKASKETA KLASIKOEN SAILA  
EHU – UPV: EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## Laburpena

Izaera politeista, tradizional, guztiz erritual eta praktiko irmoa barneratuko duen Erromako erlijioa, etengabe politikaren eskutik joanik, hiritarrek komunitatearen onerako erabilitako tresna nagusienetarikoa zen. Testuinguru honetan, Vestalak ziren Antzinako Erromako emakumezkoen sazerdozio publiko ezagunenetarikoa, apaizgoko sei kideek bizitza osoan Vesta jainkosaren eta, ondorioz, *res publica*-ren zerbitzupean jardunez. Baldintza zorrotzen bidez hautatuak eta pontifizeen *collegium*-aren autoritatepean gutxienez hogeita hamar urtez egonda, Erromako egoitza zen *aedes Vestae* tenpluko su sakratua zainduko zuten hiriko zein inperioko jarraikortasuna eta loraldia ahalbidetzearren. Bestalde, iturri klasiko idatzien aburuz, hiriko historiaren hasieratik ezarriak, Inperioarekin kontserbadurismoaren ikurra izango ziren, Erromako iragan oparora behin eta berriz gogoarazteko eta, horrela, etorkizun arrakastatsuen ideia aditzera emateko baliabidea bihurtuz.

Emakumeak izan arren, gizarte erromatarrean *status* berezi eta bakarrak gozatu zuten: *matronae*-en ezaugarri batzuek gain, gizonezkoen zenbait pribilegio zituzten (hala nola, testamentuak egitea, anfiteatroko leku pribilegiatuak edo hainbat sakrifizioetan parte hartze zuzena izatea *mola salsa*-ren ekoizpenarekin), identitate anbigua barneratuz.

Nolanahi ere, nortasun honek Erromaren egonkortasunaren segurtasuna edo apurketa gauza zezakeen, jarrera egokia ekiditeak hondamenean eratorri zezakeelako. *Pudicitia* (birjintasuna) kontserbatu beharrak ziurtasuna suposatzen zuen. Kontrakoa, *incestum* kasuak emateak *pax deorum*-aren (jainkoekiko harreman baketsua) amaiera zekarren, Erroma anabasan murgilduko baitzen. Izan ere, K.a. I eta K.o. I. mendeen bitarteko egoera politiko eta sozial ezegonkorra (gerra zibilak eta matxinadak, besteak beste) Vestalen jarrera desagokiari leporatzen zitzaion, Senatuaren boterea erlijioaren gainetik jarritz: gizonezkoen akats politikoak ezkutatu ziren eta krimenaren garbitze errituala bilatuko zen “ordena” berrezartzeko xedearekin.

Beraz, zein nolako eragina izan zuten Vestalek erromatar gizartean? Konpara daiteke hauen presentzia arlo publikoko bestelako botereekin? Ezinbestekoak ziren Erromako oparotasunaren jarraipena bermatzeko? Lan honen gai nagusia, hortaz, emakumezko berezi hauen presentzia publikoa da, Erromako hirian jendearen aurrean egoteko modu bat izango zela, hain zuzen ere.

## Abstract

The Roman religion, being polytheistic, traditional, firmly ritual and practical and constantly linked with politics, is one of the biggest tools used in favor of the welfare of the entire community. In this context, Vestals were one of the most relevant public priesthoods from the Ancient Rome. Six of its members behaved according to the Goddess Vesta and consequently, to the *res publica*. Vestals were elected under strict conditions and they were under the pontiff's authority of the *collegium* for at least thirty years. They had to keep the holy fire of Rome burning at the temple, called *aedes Vestae*, which was thought to make possible the continuation and blossoming of both, the city and the empire. On the other hand, according to the classical written sources, Vestals were imposed since the very beginning of the city's history, and they would become a symbol of conservatism. They served as a reminder of the glorious past of Rome as well as a mechanism for making public the awaiting prosperous future.

Although they were women, they enjoyed an unique and peculiar status within the Roman society: apart from the ordinary *matronae*'s features, they also had other prerogatives associated with men such as making a will, privileged sites in the amphitheater or taking part in different sacrifices by producing the so-called *mola salsa*. Through these privileges, they were considered to have embraced an ambiguous identity.

In any event, this character could ensure Rome's stability and safety or hasten its breakdown, since avoiding the right behavior would end up in disaster. The need to preserve the *pudicita* (virginity) implied security. However, cases of *incestum* could bring to ruin the *pax deorum* (with regard to the pacific relationship between gods and citizens) and led Rome to fully immerse into chaos. Moreover, the unstable social and political situation during I B.C and I A.C (civil wars and riots among others) was attributed to Vestals' misconduct. This led to prioritize Senate's power over religion: men's political mistakes would be hidden together and they would also seek for the ritual cleansing of the crime with the aim to restore the former order.

Henceforth, how was really the influence of Vestals in Roman society? Can that influence be compared to other public authorities? Were they indispensable for ensuring the greatness of Rome? Consequently, the major theme of this paper is the public presence of these special women as they represented a way of being ahead of society?

# AURKIBIDEA

1. Historiografia.....	4
2. Iturri klasiko nagusiak .....	5
3. Vestalen definizioa .....	7
4. Vestalen errepresentazio topografikoa Erromako hirian .....	12
5. Vestalen presentzia esparru publikoan .....	16
6. Konklusioa.....	21
7. Eranskin ikonografikoa .....	24
8. Iturriak .....	29
9. Bibliografia.....	30

## 1. HISTORIOGRAFIA

Vestalak, aparteko emakumetzat hartuak, eragin zuzena izan zuten Antzinako Erroman kristautasuna heldu arte. Ondorioz, gizarte erantzukizun nabariak historiagileak erakarri ditu, egun oraindik haien nortasunari buruzko zalantzak planteaturik egonez. Izan ere, sazerdozioaren historiaren (historiografia, ezaugarriak, eragin sozio-politikoak, bilakaera etab.) zein betebeharren azterketa sakona bideratzeaz gain, iturri klasikoen izaera aditzera emateagatik J.C. Saqueteren (2000) monografia ezinbestekoa da. Bestalde, entsegu hausnarketaren puntuak barneratzen ditu ere. Hori ez beste, zenbait artikuluko zientifikoek erakundearen ezaugarriei buruzko informazio orokorra eskainiko dute, gehienbat Vestaren kultuaren jatorrian, erakundearen betebeharretan, zigorretan eta eskubideetan zentratuko direla, betiere iturri klasikoen (gehlenbat literarioen) azterketari erreferentzia eginez. Vestalak, gainera, erromatar erlijio ofizialarekin harremanetan jartzen dira, tradizioak inposaturiko sistemara nola egokitzen ziren deskribatuz. Honen adibideak Alberti Manzanares (1987, 155-196) Minguez Alvaro eta Ugarte Orue (1995); eta Oria Segura (2010) ditugu.

Baina Vestalen historia eraikitzerako unean K.a. I. eta K.o. I. mendeetako Erromako emakumearen egoera juridiko zein soziala ulertzea premiazkoa da. Horretarako, G. Duby, G. eta M. Perroten (2000) lan entziklopedikoa zein E. Cantarellaren (1991) obra erabilgarriak dira, emakumezkoen papera erlijioan gizartearen marjinetan ematen dela azpimarratzen dutela ere.

Honez gain, Vestalekiko hurbilpen historikoan Erromako erlijioaren logika ezagutzea ezinbestekoa da *pax deorum* preziatua egonkor mantentzeko tresna zirelako. Ondorioz, erlijioaren argiak eta itzalak ezagutzeko ezinbestekoak dira bi obra: J. Scheiden (1991) eta J. Rüpkeren (2007) lanak, lehenengoak ikuspegi frantsesa eta bigarrenak anglosaxoiagoa barneratzen dutela, *res publica*-ren ikuspegi ezberdinak nabaritzen baitzaizkie. Biek, gainera, Vestalei buruzko informazio zuzena eskainiko dute (esaterako, topografia, birjintasunaren kontua eta *status* sozialaren berezitasunak), betiere oso ginetikoa izanez.

Honen harira, emakumeen papera bizitza publikoaren zenbait kasutan azpimarratzea ez ezik, Vestalen *status*-aren berezitasunetan (eta, ondorioz, emakumezkoen salbuespenezko kasuaren ikerketan) zentratu eta *res publica*-ren bermatzaile edo suntsitzaileen argudioa ere bideratzen dutenen obrak hauek dira: A. Staplesena (1998), S. A. Takácsena (2008), S. B. Pomeroyena (1999), eta, bigarren

mailan, C. Martínez Lópezena (1988), birjintasunaren eta Estatuaren osasunaren arteko loturari bakarrik erreparatzen baitio.

Era berean, sazerdotisa hauen nortasunean sakontzeko beharrezkoa da ekarpen arkeologiko eta ikonografikoetan zentratzen den A. B. Galliaren (2014) artikulua Vestalen elementu bereizgarriak zeintzuk ziren ezagutzeko, gehienbat, aurretik aipaturiko egoera sozialaren adierazpenak, hain zuzen ere.

## 2. ITURRI KLASIKO NAGUSIAK

Lehen mailako iturriak (literarioak, epigrafikoak, numismatikoak zein ikonografikoak) ezinbestekoak dira Vestalen informazio sakona izateko: azken finean, Antzinako Erromako bizitzaren lekukoak dira. Dena den, arazoak planteatzen dira. Iturri klasikoek garaikidetasuna barneratzean iturri zuzenak dira, baina nortasunaren arabera fidagarritasun maila ezberdina dute. Bestalde, kontserbazio mailak zailtasunak planteatzen ditu (berrerabilpen materialak, lan literarioen selekzioa edo galera etab.), gure eskuetara heldu baino lehen informazio asko galdu baita. Beraz, beti kontuan hartu beharko da egun maneiatzen dugun informazioak mugak edo oztopoak dituela.

Vestalei buruz hitz egiten duen kontserbaturiko lehen aipamen literarioa, zeharka ezagutzen den Fabio Piktorek (K.a. II. mendea) da (Saquete, 2000, 23). Errepublikaren amaieratik aurrera areagotuz joan ziren eta, orokorrean, nortasun historikoa barneratzen dute. Oro har, Vestalen jatorri mitikoa azpimarratzeaz gain, egoera juridiko zein sozial partikularren, funtzioen eta *incestum*-aren ondorioen deskribzioak bideratzen dituzte. Esaterako, idazle grekoen kasuan, Errepublikako inperialismo erromatarra zela medio, Eneas printze troiarrarekin (hots, atzerriko eraginarekin) erlazionatzen dute. Gertakari konkretuak gailentzen dira, sazerdozioaren ezaugarriak testuinguru batean egonkortzea ezinezkoa izanez eta, hortaz, orokortasunak bakarrik lortuz. Era berean, Vestalen sorrera eta bilakaera aro monarkikoari atxikitzen diote, tradizio komuna eraikiz eta erlijioaren defentsa sutua garatuz. Azkenean, Inperioko iturriek (Tazito eta Suetonio, adibidez) *princeps*-ari hertsiki lotzen dituzte, *pontifex maximus* berriak Vestalekin batera Erroma babesten zuen eta. Bestetik, antikuaristek (era guztietako datuen biltzaileak) informazio ugari eskaintzen dute, Aulo Gelio honen adibide izanez. Funtsean historian konstante bat zirela adierazten da, guztiz menderaturik egon arren, *res publica*-ren ardatzetako bat zirela, hain zuzen ere.

Epigrafiak informazio mugatua erakusten du. Egun Vestalen inskripzio funerario eta honorifikoak nagusi dira, gehienbat partikularrei zuzenduak eta sazerdozioaren aipamena bigarren mailan utziz. Epigrafe gehienak Erromako hirian kontzentratzen diren bitartean, Italiako probintzietan ere ugariak dira. Hedapen geografikoa, hortaz, ez da oso zabala, Vestalen nagusitasuna Lazio eta inguruetan mantentzen zelako. Inskripzioetan Vestalek emakumezkoen berezko ezaugarria den *dua nomina* dute. Batzuetan filiazioak aipatzen dira, familiaren iturburua (*gens*) nolabait adieraziz. Kargua aipatzerakoan Vestal Maximaren nagusitasuna ukaezina da. Bestalde, haien bertuteak nabarmentzen dira (*sanctissima, benignissima, religiosissima, piissima, purissima, castissima, pudicissima* etab.) sazerdotisen bizitzaren ildo aditzera emanez<sup>1</sup>.

Iturri ikonografikoei dagokionean, batzuetan Vesta jainkosaren irudikapena (ikus. 1. irudia) Errepublikara garaiaren agertzen den bitartean, Inperiotik *princeps*-a dago. Inperio garaian (ikus. 2. irudia), guztiak, azken finean, komunitate erromatarraren identitatearen elementuetako bat ziren.

Vestalei dagokionez, estatua honorifiko zein funerarioak nagusi dira eta, hauen bidez, sazerdozioaren irudikapenaz gain, bakoitzaren ezaugarri fisikoak modu errealistan azaltzen dira. Kontserbazio zailtasunek polikromiaren galera ekartzean zuriz janzten zirenen tradizioari gogorki eutsi bazaio ere, iturrien mugak gainditzearen janzkeraren kolorearen kontua birplanteatu beharko da. Janzkera berezia azaltzen dute: Herkulesen korapiloa gorputza hein batean ezkututzen duen *stola* tunika luzea (ikus. 3. irudia) eusteko erabiltzen zuten. Orrazkera bildua, beloa, bekokiarekiko paraleloak kokaturiko banda zabalak eta *vittae* infulak lepotik behera zintzilika ere aurkezten dute (ikus. 4. eta 5. irudiak). Hortaz, Vestalen irudia ezagutzea ezinbestekoa da haien presentzia publikoa gehiago markatzeko tresna baitzen.

Bestetik, ikonografiari lotuta, numismatikak Vestalen tenpluen itxura asmatzera laguntzen gaitu. Erromako tenpluaren egitura material eskasaren kontserbazioaren arazoak direla medio, txanponetako irudiak ezinbestekoak dira, gutxienez, *aedes Vestae*-ko *tholos* egitura ezagutzeko (ikus. 1. eta 2. irudiak).

---

<sup>1</sup> CIL VI, 32414; 32416; 32417; 32419; 324121.

### 3. VESTALEN DEFINIZIOA

Sazerdotea (*sacerdos*), betiere hiritarra izanez, jainkoekiko harremana ziurtatzeko errituak pertsonalki bideratzen zituen komunitatearen ordezkari erlijiosoa zen. Baina gizonek menderaturiko bizitza publikoan Estatuaren osasunaren emakumezko bertutearen adibidea ziren Vestalak salbuespena ziren. Jatorriz, Erroma gizarte patriarkala zen, *pater*-aren menpe familia osoa geldituz (Cantarella, 1991, 9). Ezkontzarekin, gainera, emakumea senarraren kontrolpean gelditzen zen<sup>2</sup>, eta juridikoki beti *paterfamilias* baten autoritatepean zegoela, *officia publica*-tik (ekimen erlijioso, militar edo politikoak) kanpo gelditzen zen (Mañas Núñez, 1996 – 2003, 191). Izan ere, K.a. I. mendetik eta, are gehiago, K.o. I. mendean emakume erromatarrek pribilegio batzuk konkistatu bazituzten ere (intelektualki haztea, menpekotasunetik pixkanaka askatzea, muga sexualen gainditzea etab.), Vestalak autonomia juridikoa zuten emakume bakarrak ziren.

Gizarte erromatarren nortasun berezi eta bakarrak gozatzen zuten, Vestalen identitatea anbiguotasunak ezaugarritzen zuen: *sacerdos* bihurtuta *patria potestas*-etik askatuta familiarekiko harreman juridikoa eta pertsonala guztiz galtzen zen eta, ondorioz, identitate legal berdingabea zuten (Staples, 1998, 142-143).

Sazerdote hitzak esan moduan, Vesta jainkosaren zerbitzura jarduten zuten<sup>3</sup> sei sazerdotisa publikoak ziren (Mínguez Álvaro, Ugarte Orue, 1995, 127), hauen artean guztiak ikuskatzen zituen *Virgo Vestalis Maxima* nagusi izanez.

Badirudi Vestalen agerpena Estatuko su sakratuaren eta egoitzaren (*aedes Vestae*) zaintzaren beharrak bultzatu zuela (Saquete, 2000, 70). Jatorria, ordea, antzinako autoreentzat benetan historikoak ziren irizpide mitologikoetan oinarritu zen: iturriek aipaturiko lehen Vestala Romuloren ama *Rhea Silvia* zela argudiatu zuten<sup>4</sup>, Erromako sorrerarekin, Alba Longarekin eta, batzuetan, aurretik Eneasekin eta greziarrek ere erlazionatu<sup>5</sup>. Saquetek dio egungo datuak kontuan hartuta, Vestalek Erroman jatorria izatea ez dela ziurra<sup>6</sup>, hipotesietarako aukera irekiz. Erakundea nork ezarri zuenari buruzko kontraesana zegoen ere: batzuk Romuloren ekimena zelaren alde<sup>7</sup> jo bitartean besteek Numa Pompilioren neurritzat hartzen zuten<sup>8</sup>. Bestalde,

---

<sup>2</sup> Cantarella, *op. cit.*, 18

<sup>3</sup> Varro, *Ling.* 6.17; D. H. 2.64.5

<sup>4</sup> Liv. 1.3.11; D. H. 1.76.3; Plut. *Rom.* 3.3-4

<sup>5</sup> D. H. 2.65.1-2

<sup>6</sup> Saquete, 2000, 63.

<sup>7</sup> Plut. *Rom.*, 22.1



hasieran Vestalak *rex*-aren ahaideak zirenaren hipotesia mantentzen da: erregeen alabak eta emazteak Vesta egoitzaren jainkosaren adierazpena zen sua zelatatzean komunitate osoarena babesten zutenaren ideia zabaldu zen (Alberti Manzanares, 1987, 170).

Aro Monarkikoan sazerdozioaren ezaugarri eta betekizunak finkatu ziren. Hasieran bakarrik lau birjin Vestal ezarri ziren, baina Errepublika garaiko sazerdozioaren irudia hartu zen Tarkinio Prisko erregearen eskutik bi gehitzean<sup>9</sup>. Erregearen mendeko sazerdozioa zen baina Errepublikarekin erlijioa egoera berrira moldatzean pontifizeen *collegium*-aren eta, konkretuki, *pontifex maximus*-aren kontrolpean gelditu ziren: honek, Vestalak *patria potestas*-etik aske egon arren, hauen ordezkaritza legala betetzen zuen, Vestaren *collegium*-a proposatzen zuen eta Vestaren tenpluan sar zitekeen gizonezko bakarra zen<sup>10</sup>.

Neskatxoek Vestal bezala hautatua izateko, aldiz, zenbait baldintza bete behar zituzten: Aulo Gelioren aburuz, sei eta hamar urteen bitartekoa izatea, *patrima et matrima* (hau da, gurasoak bizirik egotea) izatea, gurasoak esklabutzan edota negozio miserabletan ez jardutea, akats fisikorik ez izatea (adibidez, gorra edo totela izatea), birjina izatea eta Italian helbideratua izatea<sup>11</sup>, besteak beste. Aukeraketa *sacerdos Vestalis*<sup>12</sup> bihurtzeko *captio* zeremoniaren bidez ematen zen: haurra *patria potestas*-etik atera, familiarekiko harremana eten<sup>13</sup>, *status* berezia eraiki eta Estatuaren zerbitzura jartzen zen. Vestalek gaitasun juridikoak (*ius*) izan zituztenez pontifizeak ez zuen, horrenbestez, sazerdotisen gaineko autoritate juridikorik. Horrela, emakumezkoen artean sazerdotisa hauek ezohiko lekua hartzen zuten.

Hiru faseetan ezberdinduriko hogeita hamar urteko sazerdozioa zen: lehen hamar urteak ikasteko ziren, ondorengo hamarrak errituak praktikatzekoak, eta azkenekoak Vestal berriak hezitzeko ziren<sup>14</sup>. Baliteke epea amaitzean kargua uztea eta emakumezkoen bizitza normala berreskuratzea, baina 36 eta 40 urteen bitartean ateratzean ezkontzeko aukerak (Erroman, emakumearen funtzioa umeak erditzea zen jarraikortasun soziala eta kulturala bermatzeko) eskasak zirenez, heriotza arte Vestal izaten jarraitzeko joera nagusitzen zen (Saquete, 2000, 67).

---

<sup>8</sup> Plut. *Num.*, 9.10; D. H. 2.64.5

<sup>9</sup> D. H. 2.67.1

<sup>10</sup> Alberti Manzanares, 1987, *op. cit.* 167

<sup>11</sup> Gel. 1.12.1-8

<sup>12</sup> *Sacerdos* izendapena iturri juridikoetan agertzen da, hots, sazerdotisa bihurtu denaren adierazpena.

<sup>13</sup> Gel. 1.12.9; 1.12.13-14

<sup>14</sup> D. H. 2.67.2

Vestaren tenpluan (*aedes Vestae*) gordetako Erromako su sakratua piztuta mantentzea ziurtatzeko betebeharra zuten<sup>15</sup>. Vesta komunitate erromatarren oinarria zen etxearen jainkosa dugu. Horrenbestez, sua gizartearen kohesio elementua izan zen, *aedes Vestae* Erromako egoitza komuna izanez<sup>16</sup>. Kontrakotan, sua itzaltzean, Vesta jainkosak haren ordezkaria salbatzen zuenean kenduta<sup>17</sup>, Vestala zigortu behar zen ordena berreskuratzeko. Numaren garaitik *pontifex maximus*-ak zigortzen zuen makil batekin jipoituz (*verberae*)<sup>18</sup> eta, ondoren, sazerdotisak errituak burutzen jarrai zezakeen<sup>19</sup>.

Gainera, Plutarkoren aburuz, Numaren garaitik egunero tenplua garbitzeko Egeria iturritik ura lortu behar zuten<sup>20</sup>. Tenpluko objektu sakratuak (haien artean Troiako *Palladium* ospetsua) zaintzen zituzten, nahiz eta, adibidez, K.a. 241ean Luzio Zezilio Metelok sute batetik objektuak salbatu<sup>21</sup>. Bestalde, bizitza erlijioso erromatarrean beti agerian zeuden *precaiones* (erreguak) bideratzen zituzten, publikoki jainkoen faborea lortzeko edo *pax deorum*-a bermatzeko xedekin<sup>22</sup>.

Vesta jainkosa birjina izanik, haren sazerdotisen lehentasuna *pudicitia* (birjintasuna) kontserbatzea zen. Baina kastitate botoa apurtzeak (*incestum*) Erromaren hondamendia zekarrenez, jainkoekin harremanak baketearren *res publica* salbatzeko helburua zuen espazio erritua bideratzen zen, betiere Vestak hori ez geldiaraztean (Pomeroy, 1999, 235): *Porta Collina* ondoan lur azpiko kamera batean bizirik lurperatzen zituzten<sup>23</sup>. *Prodigium*-en<sup>24</sup> bidez krimena ezagutarazten zen. Baina hau, Erromaren larrialdi momentuetan agertzen zen, esaterako, Bigarren Gerra Punikoaren testuinguruan emandako Cannasko porrota militarra K.a. 216 urtean.

*Mola salsa* ekoiztea zen Vestalen funtzio eksklusiboa, elementu adierazgarrienetarikoak izanez (Staples, 1998, 154). Gatz egosia eta gari antzeko zereala zen farro txigortua urarekin nahastearen bidez lortzen zen eta sakrifizio publikoetan beti

---

<sup>15</sup> D. H. 2.66.2

<sup>16</sup> Saquete, *op. cit.*, 62

<sup>17</sup> D. H. 2.68.3-5; V. Max. 1.7

<sup>18</sup> D. H. 2.67.3; V. Max. 1.6

<sup>19</sup> Saquete, *op. cit.*, 93

<sup>20</sup> Plut. *Num.*, 13.4

<sup>21</sup> D. H. 2.66.3

<sup>22</sup> Saquete, *op. cit.*, 46

<sup>23</sup> D. H. 2.67.3-5; Plut. *Num.* 10.8-13, *Fab.* 18.3

<sup>24</sup> *Prodigiumak pax deorum* apurtzean jainkoek emandako abisuak ziren. Ezohiko fenomenoekin (gertakari naturalak, izurriak, ez-ohiko animalien jaiotzak etab.) erlazionatzen ziren eta ia gehienetan berri okerrak ziren. Honen interpretazioan erakunde erlijioso ezberdinen iritziak zeuden bakarrak: Senatuak, berriz, erabaki hartzea zuen. Jainkoekiko harreman armoniatsua bilatzearen, Senatuak erabakitako errituak inposatzen ziren (Rüpke, 2007, 293).

erabiltzen zen. Vestalek prozedura jakinari jarraitzen zioten: maiatzean hiru egunez farroa bildu eta lantzen (txigortu, xehatu eta ehotu) zuten eskuzko errota batean, horrela erromatar izaera tradizionala kontserbatzen zuten berrikuntza teknikoak existitu arren. Vestalak, emakumeak izanda, ez ziren gai sakrifizioak modu zuzenean burutzeko baina *mola salsa* ezinbestekoa zen sakrifizio erritueterako eta, ondorioz, jainkoekiko harreman baketsua ziurtatzeko, hau da, bizitza publikoaren jarraikortasunerako. Horrenbestez, Saqueteren ustez, *sacerdos* izaerak emango dio zeremonian (gutxienez, zeharka) parte hartzeko eskubidea<sup>25</sup>, ez Vestalaren emakumezkoen ezaugarriek.

Bestetik, Vestalek erritu publiko gutxitan zuzenki parte hartzen zuten, betiere *Virgo Vestalis Maxima*-k interbentzioa bideratuko zuela (Oria Segura, 2010, 138). *Pro populo romano* (herriaren onurarako) hainbat jaialdi erlijiosoetan parte hartzen zuten, zenbait adibide aipatzearen: *Fordicidia*-n (apirilak 15), behi haurdunen sakrifizioa *Vestal Maxima*-k burutzen zuen; *Parilia*-n, (apirilak 21) Erromaren jaiotza gogoaraztearen, *suffimen*-a (*mola salsa*-ren antzekoa zena) Pales jainkoari entregatzen zioten; *Vestalia*-n, (ekainak 7tik 13 arte) jainkosarekiko harremana estutu nahi zuten; *Opencorsiva*-n, (abuztuak 25) emankortasunaren alde Vestalek gizonezko sazerdote batekin sakrifizioa burutzen zuten; *Bona Dea*-ren jaialdietan (abenduarien 4ko gaua) esklabo eta *matronae*-kin batera *pro populo* sakrifizioa burutzen zuten komunitatearen alde. Beraz, orokorrean errituetan parte hartzea pasiboa zen, beti gizonezkoen ekintzak nagusitu ziren eta. Interpreta daiteke Vestalen presentzia jainkoekiko kontaktua errazten zuela, betiere emankortasunaren eta espazioen zein pertsonen purifikazioa bilatuz eta, azkenik, *nefastus publicus* egunetan ematen ziren jaialdietan parte hartzen zuten, hots, erromatar herriaren jaiegunetan (Saquete, 2000, 55-56). Inperioarekin batera, aldiz, gertakari historiko garrantzitsuak (oro har, printzearen familiarekin erlazionaturik zeudenak) gogoarazteko jaietan parte hartzen zuten ere<sup>26</sup>.

*Status* berezi hura bisualki antzeman zitekeen hiritarrek bezala kaleetatik *lictor* batekin joaten zirelako eta janzkera berezia zeramatzatelako (Staples, 1998, 147). Itxurari dagokionez, *matronae*-n eta ezkongaien elementuen nahasketa zuten. Matronen *vittae* ziren artilezko infulak (sakrifizioak burutzeko eramaten zirenak) zeramatzaten orrazkera guztiz bilduan (ikus. 4. eta 5. irudiak), baina hauek matronen, ezkongabetuen eta Vestalen ezaugarrikoak ziren aldi berean (Gallia, 2014, 223-225). *Seni crines* itxura hartzen zuten: atzealdea ilerik gabe zegoen bitartean aurreko aldetik hiru tirabuzoi

---

<sup>25</sup> 2000, 41-42.

<sup>26</sup> Saquete, *op. cit.*, 58

zintzilika agertzen ziren (Oria Segura, 2010, 130). Janzkera ezkongabetuen antzekoa (eta ez ezkongaitzen *flammenum* horia) zen, *matronae* eta birjinen arteko egoera bat transmitituz. Herkulesen korapiloarekin lotzen zuten soinekoa eta errituak burutzerakoan sorbaldaraino luzatzen zen txano antzeko beloa zen ertz moreak zituen *suffibulum*-a zeramatzaten (Gallia, 2014, 228). Soinekoa matronen *stola* tunika luzea zen (ikus. 3. irudia), baina birjintasuna mantentzea sazerdotisen lehentasuna izatean, Vestalen gorputza ezkutatzeko tresna bezala ere erabiltzen zen, janzerak sexualitate maila aditzera emanez<sup>27</sup>. Soineko hau, beraz, *puer* eta *matronae* arteko etapa aditzera ematen du, Vestalak aldi berean biak zirela, nolabait.

Hauen janzeraren kolorea, ordea, tradizionalki zuria zela aitortu bada ere, erromatarrek zuria kenduta gainontzeko koloreak erabiltzen zituztela azpimarratu beharko litzateke, tonu bakoitzak esanahi jakina izanik. *Suffibulum*-eko morea sakrifizioetan parte hartzeko erabiltzen zuten; beloa neurritasun sexualaren adierazpena zen; eta *vittae*-k emakumezko bertuteak eta errespetagarritasuna transmititzen zuen<sup>28</sup>. Haatik, Halikarnasoko Dionisiok esan bezala, Vestalak zigortuak izatean *incestum* egiteagatik haien jantziak kentzen zizkieten<sup>29</sup>, *status* berezia galtzen. Era berean, Inperio garaian tradizionalismoaren ikur hertsia izatean, Vestalen jatorrizko irudia kontserbatu zen. Kontrakoa, emakumezkoak Inperioko baldintza berrietara egokitzean janzkera berriak garatuko dituzte, betiere modarekiko nolabaiteko menpekotasuna izanez<sup>30</sup>.

Beraz, ez ziren *matronae*-n parekoak ez baitzituzten senarrik eta seme-alabarik; ez ziren dontzeila hutsak ezkongaien janzkera eramaten zutelako etengabe; baina aldi berean tunika luzea (*stola*) eta orrazkeran matronen infulak (*vittae*) zeramatzaten; bestalde, matronen zenbait erritu ospatzen zituzten. Gainera, gizonezkoen ezaugarriak ere barneratzen zituzten, gainontzeko emakumeak gozaten ez zituzten pribilegio batzuk, eta, guzti hori, gutxienez, Inperioaren hasiera arte (Duby; Perrot, 2000, 454).

Horrez gain, *mola salsa*-ren prestaketa, *Palladium*-a eta *aedes Vestae*-ko su sakratua ziren Vestalen elementu garrantzitsuenetarikoak, Erromaren errepresentazio zuzenak izanez: lehenak sakrifizio guztiak sinbolizatzen zituen, eta, beraz, *res publica*-ren bizitza erlijiosoak; Palasen irudiak Vestalen eragina Erromatik kanpo hedatzen zuen, Estatuaren oparotasuna ahalbidetuz; tenplua inauguraturik ez egotean bertan Senatua

---

<sup>27</sup> Gallia, *op. cit.*, 230

<sup>28</sup> *Ibid.*, 233

<sup>29</sup> D. H. 8.89.5

<sup>30</sup> Gallia, *op. cit.*, 237

biltzea ezinezkoa zen baina Vestalek Erromaren irudikapen zuzena zirenaren ideia transmititzen zuten (Staples, 1998, 154-156). Birjintasunak eta janzkerak identitate berezia ematen zieten, Vestalak Erromako gizartearen testuinguruan talde guztiz berezia izanez. Azken finean, jainkoekiko hurbiltasuna zutenez *res publica*-ren egonkortasunaren sinboloak eta bermatzaileak ziren.

#### **4. VESTALEN ERREPRESNTAZIO TOPOGRAFIKOA ERROMAKO HIRIAN**

Erroma arkaikoaren eta monarkikoaren testuinguruan, K.a. VIII. mendetik biztanleriaren kontzentrazioaz eta konplexutasun hazkundeaz gain, K.a. VII. mende amaieratik garapen urbanistikoa eman zen, horrela hiriko erakundearen eta Estatuko kultura publikoaren behin betiko finkapena bermatuz. Triada Kapitolinoaren (*Jupiter Optimus Maximus*, Juno eta Minerva jainko-jainkosak) esangura zela medio, Kapitolioko muinoa hasieratik izan zen hiriko gune garrantzitsuenetarikoa alde politiko zein erlijiosoetan.

Vestalak Erroma hirian gune jakinean finkatuta zeuden (ikus. 7. irudia), horrela hauen presentzia publikoa islatuz. *Civitas*-eko bizitza politiko zein erlijiosoaren erdigunea *Cardus* eta *Decumanus Maximus* kale nagusien arteko gurutzaketan eta Kapitolioaren oinetan altxaturiko *Forum Romanum*-a zen, bertan funtzio anitzetako espazio eta eraikinak zeudela. Foroaren jatorri materiala K.a. VII. mendeko bigarren erdialdetik dokumentatua izan da, jada *Regia* etxea bertan egonez garai monarkikotik (K.a. 753–509) (Scheid, 1991, 56-57). Hau antzinako autoreek erregearen egoitzatzat hartzen zuten egitura arkitektonikoa zen, santutegia baino, jauregiaren antza zuen eta. Honek, monarkian, *Domus Publica* eta Vestaren konplexu arkitektonikoekin harreman fisikoa zuen. Izan ere, *Regia*-ko egituraren eskala murriztuak eta bi aldareen (*Ops* eta Marte jainkoei dedikaturik) presentziak erregearen funtzio erlijiosoetarako espazioa zela aitortu zuten, honela *rex*-aren funtzio babesle militarren berrespena gauzatuz eta Errepublikarekin *pontifex maximus*ak ordezkatuz (Blázquez, 2011, 407-408). Baina eta *Consiva* nekazaritza eta emankortasun jainkoen santutegiak zeuden ondoan (Rüpke, 2007, 40), Vestalekin eta, are gehiago, sazerdotisen nolabaiteko izaera emankorrekaren lotura hertsia zeukatela.

Errepublikaren agerpenarekin *Regia* kultura administratuaren gunea bilakatu zen. Blázquezek F. Coarelliren iritzia berresten du: *rex sacrorum*-a, *pontifex maximus*-a eta Vestalak bertan biltzen ziren, egitura arkitektonikoaren eta honen inguruaren moldaketa

eginez: *Regia* monarkikoaren banaketa estrukturala eman zen *atrium Vestae*, *aedes* izaeradun Vestaren tenplua, jatorrizko *Regia* eta, azkenik, *pontifex maximus*-aren *Domus Publica* berezituz<sup>31</sup>.

Jainkosarekin lotutako topografiak, beraz, erregearekiko konexio ukaezina aditzera ematen zuen. Dibinitateekiko harreman baketsua ahalbidetzeko hasiera batean erregeak funtzio erlijiosoak barneratu zituen, hiriko bizitza publikoaren gaineko kontrola lortuz eta, orduan, Vestalen bizitza menderatuko zuen sazerdote nagusia izanez (Saquete, 2000, 127). Baina Errepublikaren finkapenarekin erregearen irudia desagertu eta autoritate politiko-erlijioso nagusi berria izan zen Senatuaren agerpena eman zen. *Rex*-aren botere monopolioaren “demokratizazioa” eta espezializazioa emanda, ekintza ezberdinetarako sazerdozioak eraikiz eta baldintza politiko berrietarako moldaketa gauzatu zen. Gauzak honela, Vestalak pontifizeen *collegium*-aren mende gelditu ziren, *Regia* Errepublikatik *pontifex maximus*-aren ondarea bihurtuz (Blázquez, 2011, 416).

*Atrium Vestae*-a hemen kokatzen zen. Izen honek ez zuen beti Vestalen egoitza (*Domus Vestalium* bezala ere ezagutua) izendatzen bakarrik; batzuetan *Regia*, *Domus Publica*, *Lacus Vestae* basoa eta jainkosaren tenplua barne hartzen zituen<sup>32</sup>. Hortaz, Vestalen eta pontifizeen arteko harremana fisikoki antzeman zitekeen topografiari esker: azken finean, egituraren barnean pontifizearen egoitza zen *Domus Publica* kokatzen zen, Vestalen etxearekin horma komun baten bidez konektaturik zegoela. Baina Inperioaren ezarpenarekin eta, konkretuki, Augusto K.o. 12. urtean *pontifex maximus* bihurtzean Vestalen gaineko autoritate absolutua bereganatu zuen. Izan ere, Augustok Vestalekiko erlazio zuzena garatu zuen *Palladium*-aren kontserbazioarekin Eneasekin lotuz: azken finean, Erromako berpizkundearen irudia izan nahi zuen eta Vestaren estatu bat *princeps*-aren etxeko *sacrarium*-ean kokatu zuen haren garrantzia azpimarratzearen. Beraz, Augusto eta Vesta Erromaren babesleak zirenen ideia transmititzean Vestalek inperioarekiko leialtasuna ordezkatzeko zuten: botoak eskuratzearen truke enperadoreak donazioak, lurrak eta pribilegio juridiko zein sozialak eskaini zizkien (Saquete, 2000, 87).

Vesta jatorri oso primitiboko komunitatearen etxeko eta su amataezinaren jainkosa babeslea izatean *aedes Vestae* (ikus. 1. eta 2. irudiak), foroaren hego-ekialdean kokaturik (Palatinoaren oinetan, *Regia* eta *Lacus Iuturnae* artean), Erromako egoitza eta biziraupenaren sinboloa zen: inguruan Estatuaren erlijioan protagonismoa zuten

---

<sup>31</sup> 2011, 440.

<sup>32</sup> Ovid. *Fast.* 6.263-64

eraikinei lotuta zegoen, tenplua hiriko bihotza kontsideratzera helduz. Vestaren suak balore sinboliko bikoitza zuen: emakumearen purutasun sexuala eta gizonezkoen sorrarazte (prokreazio) gaitasuna biltzen zituen (Staples, 1998, 149).

Tenpluaren eraikuntza nork bideratu zuen eztabaida Antzinatean bertan piztu zen, Romulo eta Numa erregeei leporatuz. Hala ere, gehienek azken honen ekimena izan zela aitortu zuten<sup>33</sup>. Eraikinaren nortasuna berezia zen, *aedes* eta ez *templum*<sup>34</sup> zenbait arrazoiengatik: alde batetik, jainkosaren egoitza zen, ez augureek bideraturiko erritu baten bidez (*inauguratio*) definituriko egitura; bestetik, lur publikoan altxatzen zen; eta, azkenik, inauguraturik zegoen lurraren gaineko egitura zen (Blázquez, 2011, 470-471). Oin zirkularreko *tholos* egitura zuen (ikus. 1. eta 2. irudiak) eta inauguraturik ez egotean Senatuaren ekintza politikoetarako erabilgaitza zen (Richardson, 1992, 412). Bestalde, sarrera mugatua zen, bakarrik Vestaren sazerdotisak eta *pontifex maximus*-a sar zitekeela<sup>35</sup>, salbuespenak kenduta (*matronae*-ak *Bona Dea*-ren jaialdietan, kasu).

Ovidiok zioen tenpluaren barnealdean ez zegoela, printzipioz, jainkosaren estatua antropomorfikorik<sup>36</sup>, kulturekoaren sinboloa zen su sakratua Vestaren irudikapen zuzena izanez (Staples, 1998, 149). Horrez gain, *penus Vestae* biltegia zegoen non kutsu sakratuko objektuak gordetzen ziren: Erromako jatorri mitiko troiarra gogoaraziko zuen Eneasek ekarritako Palas Minervaren irudi sakratua (*Palladium*-a)<sup>37</sup>; Penateen (esparru domestikoaren zein aberriaren jainkoak) errepresentazioak eta *res publica*-ren oparotasuna bultzatzearen gaizkia aldentzeko xedea zuen *fascinum* sinbolo falikoa (Saquete, 2000, 43-44). Bestelako elementu mirengarri eta misterioitsuak zeuden ere: jainkoen amaren orratza, Veieseko lokatzezko koadrigak, Orestesen errautsak, Priamo errege troiar ospetsuaren zettoa, Ilionaren beloa eta administrazio zein politika pertsonaien testamentuak (Alberti Manzanares, 1987, 169). Dena den, tenpluak bere altxor propioa (tenpluaren ondasunak zein borondatezko eskaintzak) izateaz gain, hiritarren aurrezkiak gordetzen zituen, puntu bateraino banku nortasun antzeko bat barneratzera hel zitekeela (Blázquez, 2011, 480-481).

K.a. 390an galiarrak Erromara sartu zirenean tenplua erre zela dirudi, betiere objektu sakratuak babespean jarrita<sup>38</sup>. K.a. 241an beste sute bat jasan zuen baina Zezilio

---

<sup>33</sup> Ovid. *Fast.* 6.257-60; D. H. 2.66.1; Plut. *Num.* 11.1

<sup>34</sup> Gel. 14.7.7

<sup>35</sup> D. H. 2.66.5

<sup>36</sup> Ovid. *Fast.* 6.295-98

<sup>37</sup> D. H. 2.66.5; Plut. *Cam.* 2.5-6

<sup>38</sup> Liv. 5.40.7-10, 5.42.1-2; Plut. *Cam.* 21.1; 22.6; V. Max. 1.10

Metelok objektuak babespean gorde zituen<sup>39</sup>. K.a. 48an, gerra zibilaren testuinguruan, arriskuaren aurrean objektuak berriro lekualdatu ziren<sup>40</sup>. Hala ere, Inperioaren ezarpenarekin eta, konkretuki, Augustok K.o. 12. urtean Senatu dekretu baten bidez Vestaren aldea eta *Palladium*-a enperadorearen Palatinoko egoitzara lekualdatu zituen eta K.o. 14an emandako sutetik objektuak salbatu ziren<sup>41</sup>. 64. urtean Neronen garaiko suteak tenpluaren suntsipena ekarri bazuen ere, berehala berreraikiarazi zela dirudi<sup>42</sup>. Horrenbestez, Vestaren santutegia Palatinora lekualdatu zen tradizio errepublikarrekin moztuz eta Estatuko kultu nagusienetarikoa *princeps*-aren irudiaren inguruan garatuz (Rüpke, 2007, 217).

Vestalen etxea (*atrium Vestae*) basoaren hegoaldean, tenpluaren iparraldean eta *Domus Publica*-ren ekialdean kokatzen zen. *Iulia* Basilika baino handiagoa izatean, eraikinaren eskala monumentala zen, sazerdotisen beharrak eta funtzio anitzak betetzeko esparrua izanez. Senatuak, gainera, bertan biltzeko aukera zuen inauguratua zegoelako. Denboran zehar *atrium*-aren aldaketak etengabekoak izan ziren, esanguratsuen Neronen garaiko sutearen<sup>43</sup> osteko berreraiketa izan zela. (Richardson, 1992, 42). Alabaina, ez dirudi *atrium* forma tradizionala izan zuenik: logelak eta harrera gunek ezberdintzen ziren baina ez dirudi kultu erabilerarako (esaterako, *mola salsa*aren prestakuntzarako) espezifikoki diseinaturiko gelak zeudenik<sup>44</sup>.

Vestalen heriotza zigorra eta, ondorioz, espazio erritua *Porta Collina*-ren alboan zegoen lur azpiko kameran garatzen zen, Kirinalean kokaturik. Hiriaren mugetan (baina oraindik *pomerium* barnean) kokatzeak Erromako esparru ahula zela adierazten zuen (Saquete, 2000, 99). Ate honen inguruan *Via Salaria* eta *Via Nomentana* kaleak zeuden, hiriaren hastapenetan garrantzia ekonomikoa zeukatela gatzaren merkatal bidearen parte baitziren. Bestetik, Kirinala, tradizioaren arabera, Sabinoen bizitokia izan zen eta Kirino jainko zaharraren kultuarekin konektatuta egotean Erromaren jaiotzarekiko harreman estua finkatu zen (Takács, 2008, 89). Vestalen heriotzak Erroma salbatzeko xedea bazuen ere, espazio lekuak Vestalen antzinatasuna eta Erromarekiko tradizioekiko lotura aditzera ematen zuen, jainkoek zein komunitate hiritarrak hiriaren lortasuna berreskuratzeko eta gogoarazteko leku sinbolikoa bihurtuz.

---

<sup>39</sup> D. H. 2.66.4

<sup>40</sup> Cass. Dio. 42.31.3

<sup>41</sup> Cass. Dio. 54.24.2

<sup>42</sup> Tac. *Ann.* 15.41; *Hist.* 1.43

<sup>43</sup> Tac. *Ann.* 15.41

<sup>44</sup> Richardson, *op. cit.*, 44



Vestalen kokapen topografikoak Erromako epizentro erlijiosoaren inguruan garaturiko harremanak irudikatzen ditu. Foroaren erdigunean kokaturik, erlijio eta politikaren arteko erlazio zuzena Vestalek ere barneratzen zuten: teorian Vestalen bizitza eredugarriak Erromako ekintza militar eta politiko arrakastatsuak bermatuko zituen eta, kontrakoan, inperioaren krisia eragingo zuten. Pontifizeekiko lotura fisiko estuak *pontifex maximus*-aren autoritate maila transmititzen zuen, sazerdotisen bizimodua menderatuko zuela *captio*-tik. Izan ere, Errepublikaren amaierarekin enperadoreak hartu zuen kargua, sazerdotisak *princeps*-aren irudiarekin fusionatuz. Augustorekin, beraz, Erromako etorkizuna enperadorearen ekintzei lotuko zitzaion: ekintza politikoen zuzendari nagusia izateaz gain, lehen mailako autoritate erlijiosoa izatean Vestalek eragin zezaketen hondamendia ekidin behar zuen.

Era berean, Vestarekin lotutako egitura arkitektonikoek Erromako historiaren bilakaera transmititzen du. *Regia*-k azaldu bezala, hasiera batean erregea zen protagonista absolutua esparru guzietan. Baina Errepublikaren ezarpenarekin botere pilatzea bertan behera utzi zen Senatuko parte-hartzeari esker. Irekidura eman arren, ezin da ahaztu behar *nobilitas* elite aristokratikoa zegoela orain boterean, erlijioa eta, ondorioz, Vestalen ekintzak haien interesen alde maneiatuko zirela.

## 5. VESTALEN PRESENTZIA ESPARRU PUBLIKOAN

Jainkoekiko hurbiltasuna zela eta, erromatar gizartean Vestalak prestigio eta errespetu ikurrak ziren, baina, aldi berean, beren izaeraren anbiguotasunak publikoan zeukaten lekua markatzen zuen. Emakumeen artean kasu berezia ziren berez gizonezkoenak ziren hainbat eskubide zituztelako. XII Taulen Legearen (K.a. 451-450) arabera, *sacerdos* bihurtzean familiaren loturetatik (*paterfamilias*-en autoritatetik) ateratzen zen, *pontifex maximus*-ak ez zuela lege tutoretzarik haren gainean (Pomeroy, 1999, 236). Oinarrizko eskubide juridikoak kontserbatzen zituen, legearen menpe bakarrik geldituz; horrenbestez, testamentua egiteko eskubidea zuen<sup>45</sup> hiltzean haren ondasunak Estatuaren menpe automatikoki gelditzea saihestuz (Saquete, 2000, 84). Era berean, testamentu garrantzitsuen babesleak ziren<sup>46</sup> zenbait arrazoiengatik: jainkoekin erlazio zuzena izateak suposatutako konfiantza, politikan “neutral” moduan jokatzeko eta

---

<sup>45</sup> Gel. 1.12.9; Plut. *Num.* 10.5

<sup>46</sup> Suet. *Jul.* 83.1; *Aug.* 101.1; Tac. *Ann.* 1.8.1

tenpluko bortxaezintasunaren segurtasuna<sup>47</sup>. *Forum*-ean epaiketetan lekukoak izan zitezkeen ere, gutxienez Inperioan<sup>48</sup>.

Goi mailako emakumeekin alderatuz gero, eskubide sozial zabalak zituzten. Kaletik aske joateko aukera zuten. Hiritik zehar joatean aurretik *lictor*-a zeramatzaten<sup>49</sup>, ez fisikoki babesteko, Vestalaren presentziaren berri emateko baizik. Saqueteren ustez, gainera, haien sakratutasuna areagotzen zuen<sup>50</sup>. *Matronae*-n ohiko eskubidea zen *carpentum* gurdia erabil zezaketen<sup>51</sup>. Larrialdi uneetan laguntza eskaintzen zuten: hain errespetagarriak ziren non kaletik sazerdotisak bakarrik kasualitatez heriotza zigorra zuen kondenatu bat aurkitzean aske gelditzen zen<sup>52</sup>. Gainera, *incestum* egin arren *pomerium* barnean *intra urbem* lurperatzen zituzten (*Campus Sceleratus*-ean, kasu)<sup>53</sup>.

Horrez gain, pribilegio ekonomikoak zituzten. Estatuak ekonomikoki hornitzen zituen: zerga salbuespenak eta lur kontzesioak lortu ez ezik, partikularrengandik bestelako donazioak ere jasotzen zituzten<sup>54</sup>, tenpluan “Vestalen artxibo” moduko batean denetarik gordez. Gainera, ordezkari gabe baliabideak kudeatzeko autonomiaz gozatzen zuten<sup>55</sup>.

*Ludi* ikuskizunetara zein antzerkietara joan zitezkeen Errepublika amaieratik baina Goi Inperioko iturriek jada goi mailako eserlekuak zituztela aitortzen dute<sup>56</sup>: Suetoniok dio Augustok pretoreen tribunaren aurrean kokatu zituela<sup>57</sup> (ikus. 8. irudia). Toki pribilegiatuetan ezartzean komunitate osoak identifikatzen zituen, propaganda politikorako tresna paregabeak bihurtuz.

Vestalak Augustok gizarte kontserbadurismoaren aldeko erregenerazio programaren barneko baliabide bat ziren, gainontzeko emakumeengatik gailenduz<sup>58</sup>. Augusto 12. urtean *pontifex maximus* izendatzean autoritate erlijioso nagusia bihurtuta sazerdozioen prestigio berreskurapena bideratu nahi izan zuen (Scheid, 1991, 65). Baina ez zen erlijioaren dekadentziarik ematen, eraldaketa baizik: erlijioaren eboluzioa

---

<sup>47</sup> Saquete, *op. cit.*, 106

<sup>48</sup> Tac. *Ann.* 2.34.4

<sup>49</sup> Plut. *Num.* 10.6

<sup>50</sup> 2000, 112

<sup>51</sup> Saquete, *op. cit.*, 112

<sup>52</sup> Suet. *Jul.* 1.2; Plut. *Num.* 10.6

<sup>53</sup> Saquete, *op. cit.*, 114

<sup>54</sup> *Ibid.*, 110-111

<sup>55</sup> Plut. *Num.* 10.5

<sup>56</sup> Suet. *Ner.* 12.4; Tac. *Ann.* 4.16.4

<sup>57</sup> Suet. *Aug.* 44.3

<sup>58</sup> Saquete, *op. cit.*, 114

bilakaera politikoak mugatuko zuen<sup>59</sup>. *Princeps*-ak Vestalen gaineko autoritatea bereganatu zuen. Vesta Penateei, *Palladium*-ari zein Eneasi eta, ondorioz, *princeps*-ari<sup>60</sup> zuzenean lotu zen, Errepublikako pontifizeekiko harreman hertsia apurtuz. Era berean, Augustok Vestari dedikaturiko *sacrarium*-a sortu zuen bere Palatinoko egoitzan, Apolorekin batera jainko hurbilena izanez (Saquete, 2000, 87).

Halatan, enperadoreak Vestaren izaera babeslea barneratu zuen, hiriko zaindaria baitzen. Vestalei pribilegioak eskaini zizkien, lurrak, donazioak eta abantaila juridikoak (*matronae*-n ezaugarritzkoa zen *ius trium liberorum*), besteak beste. Hortaz, Vestalak enperadorearekiko leialtasunaren ikurrak zirenez, Erroman zeukaten etengabeko presentzia publikoa konfirmatu zuten<sup>61</sup>. Aldi berean, tradizionalismoaren ordezkariak ziren, ustez Erromako jatorritik edo, gutxienez, monarkiatik ezarritako erakundea kontserbatuz historiaren eta inperioaren arrakasta gogoaraziz. K.a. I. mendetik, beraz, *res publica*-ren egonkortasunak ez zuen birjintasunaren kontserbazioak baldintzatzen, *princeps*-aren ekintzek baizik<sup>62</sup>. Augustotik tradizioen zaindaria ziren, hein batean emakumezko erromatarraren idealen bertuteen pertsonifikaziotzat hartzen zirela. Julio-klaudiarrak dinastietako enperadoreek Vestalen pribilegioak hurbileko ahaideei eskaintzen zizkieten<sup>63</sup>. Erromatar erlijioa Inperioko baldintza berriei moldatzean, Vestalen jarraipena eman bazen ere, haien garrantzia politiko zein erlijiosoa murriztu zen enperadorearen irudia gailenduz.

Esan bezala, Vestalen betebeharrak nagusienetarikoa birjintasuna sazerdotisa bezala jarduten zuten denboraldian mantentzea zen. *Virgo* ezkondu gabekoa izendatzeko erabiltzean Vestalen kategoria arteko egoera sozio-biologikoa berresten zen, *matronae*-tatik ezberdinduta abstinentsia (*pudicitia*) absolutua biltzen zuela<sup>64</sup>. Beraz, kontzeptuaren esanahi psikologikoak zuen lehentasuna, horrela botere erlijioso bitxia barneratzen. Bestalde, Vestal izateko baldintzen artean familia erromatar “idealeko” kidea izatean, eredu sozial bezala ere jokatzeko zuten (Staples, 1998, 139).

*Res publica*-ren egonkortasunaren eta, aldi berean, anabasaren arriskuaren irudikapenak ziren. *Incestum* (birjintasunaren galera) ematean Vestal izateari uztearen erabakia hartzen zen. Erromako osasun politikorako ezinbestekoak zirenez, baten

---

<sup>59</sup> Scheid, *op. cit.*, 128

<sup>60</sup> Augusto, Zesarren ondorengoa izanda, Venusen ondorengotza argudiatzen zuen *gens Iuliaren* kidea zen, jainkosaren semea zen Eneasekin harreman zuzena hartuz.

<sup>61</sup> Saquete, *op. cit.*, 87

<sup>62</sup> Horrek azalduko zuen Augustorekin konfirmaturiko *incestum* kasurik ez ematea (Saquete, 2000, 100).

<sup>63</sup> Saquete, *op. cit.*, 116

<sup>64</sup> *Ibid.*, 64

krimen erlijiosoak mehatxua sorrarazten zuen gizartean krisia eraginez<sup>65</sup>. Jainkoek *prodigium* bidez hutsaren berri ematen zuten. Erromako erlijioaren sineskeriaren eragina zela medio, delitua baino, *pax deorum*-a berrezartzeko lohitasuna ezabatu behar zen (Martínez López, 1988, 139). Izan ere, sazerdozioek (konkretuki pontifizeek, *decemviri*-ek eta *haruspices*-ek) soilik iritzia eskaintzen zuten bitartean, Senatuak du espiazteko erritua hautatzeko eskubidea (Rüpke, 2007, 293). Sineskeria zela medio, krisi militar, ekonomiko, politiko zein sozialak azaltzerako unean Vestalen jarrera desegokiak suntsiketa bultzatu zuenaren ideia zabaldu zen (Martínez López, 1988, 142).

Hondamena ekiditeko lehendabizi, *pontifex maximus*-aren autoritatea berretsiz, pontifizeen gorputz erlijiosoak burutzen zuen prozesu judizial bat ematen zen (Staples, 1998, 139). Vestalak inozentzia argudiatzeko aukera zeukan eta Vesta jainkosak hori ere defenda zezakeen<sup>66</sup>. Baina bozkatzeko baten bidez (ikus. 1. irudia) errudunak ezartzen ziren, heriotza zigor espiatoriora (ikus. 6. irudia) kondenatuz. Bestalde, Vestal batzuk bere buruaz beste egin bazuten ere<sup>67</sup>, ez dira eraginkorrak izango (Saquete, 2000, 96) *consensus deorum hominum* berregituratzeko.

Vestal ohia lurperatze eta erailte erritua erabiltzen zen<sup>68</sup>. Herioa, hortaz, itxaropena berrezartzeko teknika politiko hutsa zen, sazerdotisen jarrera zein irudi publiko egokiak arriskua ekiditen zuelako (Staples, 1998, 137-138). Ez zen hilketaren parekoa, erritu erlijiosoaren antzekoa baizik: inork ikusi gabe zenbait egunez bizirauteko ondasunekin lurperatzean sazerdotisa lohia ez zen akabatzen. Bere burua lurperatzen zuenaren ideia zen eta birjina izatean lurperatzean emankortasun baliabidetzat hartzen zen (Takács, 2008, 87-88), horrela Estatuaren “konponketa” gauzatuz. Horrenbestez, mota honetako giza sakrifizioa ezinbesteko erromatar erritua zen (Staples, 1998, 134). Hala ere, Erromako mendeetako historia osoan zehar 18 eta 20 Vestal bitartean hil zituzten arrazoi honegatik (Errepublikako garaian sakontzeko ikus. 6. irudia), salaketa ekiditeko formak nahikoak baitziren. Kontuan hartu behar da Vestalek, edozein hiritarrek bezala, haien buruak defendatzeko gaitasuna zeukatela. Bestalde, *incestumaren* konplizea Foro Boarioan pontifizeak hil arte jipoitzen zuen (Alberti Manzanares, 1987, 170).

Vestalen bizimodua ez zen *atrium Vestae*-ra murrizten, Erromako hirian etengabe presentzia zuten gorputza baitziren. Azken finean, Erromako bihotza zen

---

<sup>65</sup> Staples, *op. cit.*, 135

<sup>66</sup> D. H. 2.68

<sup>67</sup> V. Max. 6.1

<sup>68</sup> D. H. 2.67.3-5; Plut. *Num.* 10.8-13, *Fab.* 18.3

Vestaren tenpluaren eta hango suaren babesleak ziren, jainkoekiko kontaktu zuzena izatean *pax deorum*-aren gordailuetako bat izanez. Eguneroko bizitzan *res publica*-ren ordezkariak bezala jokatzeko zuten. Estatuaren osasunarekiko, Vestalak emakumezkoen bertutearen isla ziren, non akatsak ez ziren onartzen (Pomeroy, 1999, 335). Baina emakume “garbiek”, nahiz eta komunitatearen etorkizuna bermatu, ezarritako arauak apurtzean Erroma eta, ondorioz, Estatua bera gaitzera kondenatzen zuten (Martínez López, 1988, 144).

*Pax deorum* eta gizarte ordena berrezartzeko Vestalen hilketa errituala beharrezkoa zen. Senatuak haren eskuetan zuten, ondorioz, Estatuaren jarraikortasuna: Vestala zigortzeko eta komunitatearen distirarako itzaropena sortzeko tresna politikoak erlijioarekin nahasten ziren. Berriz ere, Vestalek gizonezkoen funtzioetan, gutxienez zeharka, esku hartzeko gaitasuna zuten (Duby; Perrot, 2000, 452) eta sistemaren salbuespenetzko *statusa* nabarmentzen zuten. Baina gizonezkoen akats politiko-erlijiosoak Vestal susmagarriek ordaintzen zituzten, *res publica*-ren botere hierarkia sendoa konfirmatzen zutela. Maila altuko hiritar nagusiek politika eta erlijio kargu nagusiak monopolizatu zituzten Errepublikan, Erromaren kontrol absolutua haien esku geldituz. Ondorioz, Senatuaren boterea hertsiki lotuta zeuden bi aldeotan konfirmatzen zen Vestalenganako susmoa errealitate bat bihurtzen baitzuen. *Res publica*-k Vestalekiko menpekotasuna izango zuten, hauek *ira deorum* ekartzeko gaitasuna zuten eta, era berean, komunitatearen onurarako harremanak berrezartzeko baliabide bakarrak ziren (Takács, 2008, 124).

Aldi berean, boterearekin hertsiki erlazionatuta zeudenez, Vestalekiko hurbiltasunak eskala sozio-politikoan hazteko posibilitatea ematen zuten (Saquete, 2000, 117). Goi mailako emakumeen antzeko bizimodua aurrera eramateko gaitasuna zuten; are gehiago, gizonezko hiritarren hainbat pribilegio zirela medio gizartean leku ia paregabea zuten. Berez, emakumeek bizitza publikoan ez zuten era zuzenean parte hartzen, baina Vestalen kasua bestelakoa zen: dokumentu juridikoen babesleak, sakrifizio guztietarako *mola salsa*-ren prestatzaileak, Erromako jatorriaren eta Vesta jainkosaren pertsonifikazioak zein Estatuaren bermatzaileak ziren. Egonkortasunaren gordailuak, Erromako jainkoekiko harreman baketsuaren bermatzaile bakartzat hartzean aitortza juridiko zein morala zuten.

Hala ere, jarrera egokia mantentzearen kontua Erromako elitearen interesen araberakoa zen, larrialdi momentuetan sistema politikoak bideratu ez zituen huts egiteen ideia zabaldu nahian aitzakia erlijioso paregabeak ziren. Errepublika amaieratik (K.a. I.

mendea) gizartearen eraldaketa eman zen hedapen geografikoan oinarrituriko inperialismoaren ondorioz, politikak erlijioa guztiz inbaditu zuen (Scheid, 1991, 99). Horrela, politikak superstizioa guztiz kontrolatu ezin zuenez bizitza erlijiosoa neurtzeko beste teknikak erabili behar zituen, Vestalak politiko horien menpe geldituz. *Civitas*-eko erlijioan jainkoak, magistratu politiko zein erlijiosoak eta hiritarrek parte hartzen bazuten ere, bigarrenek zuten nagusitasuna<sup>69</sup>. Teorikoki, komunitatearen erlijioaren ardatza hiru sektoreen arteko adostasun baketsuan zegoen, baina praktikan, Vestalekin ikus daitekeen bezala, magistratuen boterea gailentzen zen: senatariek jainkoen esanak onartu edo deuseztatu eta hiritarren betebeharrak zuzentzen zituzten.

Erantzukizun publikoa esparru erlijiosoan zein politikoan nabaria zuten, betiere Senatua autoritate nagusia izanez eta, aldi berean, *matronae*-k ez bezala, hiritar baten antzera, autonomia juridikoaz gozaten zuten. Bizitza publikoan zituzten mugak goi mailako emakumeen egoerari erantzun baino, sazerdozioaren betebeharrari eusten zieten. Beraz, haien nortasunaren malgutasunari esker gizona hiritarrek edo, hobe esanda, *nobilitas* eliteak (Errepublikan, batez ere) guztiz menderaturiko arlo publikoan aurkezten ziren emakumezko nagusiak ziren, hauen hierarkian maila gorenean zeudenak, hain zuzen ere.

## 6. KONKLUSIOA

Teorian, erlijioa ez zegoen zuzenean erabaki politikoaren menpe baina berau legitimatzeko tresna eraginkorra zen (Rüpke, 2007, 4). Beti erromatar komunitatearen osasuna helburu izanik, erritu erlijiosoen praktika egokia beharrezkoa zen jainkoen borondatea lortzeko eta, hortaz, Erromako autoritate erlijiosoen funtzio nagusia errituen bideratze aproposa bermatzea zen<sup>70</sup>. Vestalen kasua bestelakoa zen: praktikan, erlijioa Senatuaren zerbitzura zegoen Errepublikan eta, Inperioan, erabateko botere politiko eta erlijioso pertsona berean bildu zirela, *princeps*-aren autoritatepean. Vestalek *res publica*-ren zaindari moduan funtzionatzen zuten trukean zenbait abantaila eskuratzen zituztela logikoa dirudi.

Baina, bazirudien abantaila juridiko, sozial eta ekonomikoak zituztela prezio altu baten truke. Su sakratuaren zaintza burutzean eta purutasuna mantentzean Erromako jarraikortasuna bermatzen zuenaren ideia gordailuak ziren: Vestalak krisialdiak

---

<sup>69</sup> Scheid, *op. cit.*, 47

<sup>70</sup> Rüpke, *op. cit.*, 58

ekiditeko teknika gisa funtzionatzen zuten. Vestala “zigortua” izan behar zen, erritu baten parte izanda, ordena berreskuratzeko elementua bilakatur. Ondorioz, sazerdotisa, jainkoen mezu zuzenak izanez *prodigium* bezala funtzionatzen zuen eta *incestum*-aren ondorio zuzena zen (Cid López, 2007, 16), hots, akats erlijiosoa zein konponbidea. Alabaina, dibinitateekiko harremana berreskuratzea Senatuaren erabakien menpekoa zen. Erlijioa eta politikaren arteko lotura hertsia berriz ere konfirmatzen zuen honek. Horrenbestez, Vestalak interes politikoen kontrolpean zeuden: aitzakia erlijiosoaz baliatuz larritasunak eta beldurrak ezaugarrituriko krisiak azaltzeko, gizonezkoen gestioaren paper erruduna ezkatutuz eta, are gehiago, Senatuaren erabakiak salbazioa ekarriko zutenaren ideia hedatuz. Krisia ez zen erlijiosoa, *res publica*-ren funtzionamendua arlo jakinetan kolokan jartzen zela adierazten baitzen: kalteen erruduntzat hartzen ziren eta ez aparailu politiko-sozial nagusia zen Senatua.

Ondorioz, Vestalen presentzia publikoa azpimagarria izan zen K.a. I eta K.o. I. mendeetan. Errepublika amaierako denetariko krisialdiak justifikatzeko erabili ziren. Hala ere, ez ziren Erromako oparotasunaren gordailuak izan: erabaki politikoak izango ziren *res publica*-ren norabidea zuzentzen zutenak eta erlijioak boterearen interesen arabera funtzionatuko zuen.

Leku pribilegiatua eta guztiz salbuespenezkoa zuten Erroman: publikoan modu jarraituan mantentzeko forma bakarra zen Vestal bezala jardutea. Pomeroyren esanak berreskuratzearren, Vestala “*la mujer más libre de Roma*” zen<sup>71</sup>. Bizitza sozial askeagoaren adibidea zen eta Erromako eguneroko bizitzan presentzia zuen. Ukaezina da gainontzeko emakumeekin konparatuz gero, Vestalen esangura publikoa goi mailakoa zela. Vestalekin emakumeen funtzio tradizionala (hau da, gazte ezkontzea, *paterfamilias* berria zen senarraren autoritate juridikoaren menpe gelditzea eta belaunaldi eta hiritarren jarraikortasuna bermatzea) ezabatzen zen (Takács, 2008, 122).

Antzinako Erroman emakumeak kontu publikoetan guztiz baldintzatuta egon arren, bai *matronae*-ak bai Vestalak *res publica*-ren salbatzaile moduan jotzen zuten jainkosekiko harreman estuari esker. Erlijioan ez-ohiko egoerak ematean emakumeek protagonismo aktiboa eskuratzen zuten: arrisku aldietan kultu ofizial publikoak behin behineko bere gain hartzen zituzten. Beraz, emakumeak ez zeuden guztiz baztertuta esparru erlijiosoetan, ertzetan baizik<sup>72</sup>.

---

<sup>71</sup> 1999, 236.

<sup>72</sup> Cid López, *op. cit.*, 13

Pertsonaia nahiko bitxiak baziren ere, isolaturik bizi zirenaren ideia ez da batere koherentea: azken finean, Erromako etorkizunaren baldintzatzaile bezala jokatzean Vestalak *atrium Vestae*-tik harago zihoazen. Sazerdozio funtzioak beti gizonezkoen menpe zeuden Vestalen kasua izan ezik. Beraz, hauek liturgia publikoetan integraturik egongo ziren, gizonezkoen nagusigo erlijiosoaren ondorioz emakumezkoak menpe mantenduko zirela (Duby; Perrot, 2000, 474).

Vestalen bizitza publikoa apartekoa bazen ere, Antzinako Erroma ezaugarritzen zuen emakumeen menderatze eta pasibotasunaren beste adibide bat dira. Vestalak ezinbestekoak ziren (adibidez, *mola salsa*-ren ekoizpenarekin sakrifizio publikoak burutzeko) baina beti gizonezkoen irudiaren atzetik zihoazen, dimentsio publikotik nolabait aldenduta.

Nahiz eta eragin publikoa izan, hiritarrena nagusitasuna gailentzen zen. Ezinezkoa da, beraz, sazerdotisen presentzia arlo publikoko bestelako botereekin konparatzea, beti hierarkian bigarren mailako postuan mantentzen ziren. Beste alde batetik, emakumezko askeentzat hartzea akatsak ekar ditzake: azken finean, Antzinako Erromako gizarteak egitura patriarkal irmoa zuen, emakumeak modu independentean ekintzak bideratzeko gaitasunik ez zutela. Vestalek pribilegioak bazituzten ere, Vestaren zerbitzura era egokian bizi behar zuten, gizonezkoen askatasunetatik oso aldenduta egonez. Haien buruen ordezkaritza eta bestelako abantaila juridiko, sozial zein erlijioso izan arren, *res publica*-ren funtzionamenduaren arabera jardungo zuten beti. Beraz, Vestalak, *matrona* bere aitaren edo senarraren autoritatearen kontrolpean bezala, Estatuaren "*patria potestas*" antzeko baten kontrolpean egongo ziren, aske izateko posibilitateak ia ezinezkoak izanez eta botere publikoek bultzaturiko eginkizunak betetzera behartuta egonez.

Vestalen egoera soziala eta presentzia arlo publikoan hein batean egungo emakumeenarekin konpara daiteke. Egun gizarte patriarkalaren zutabeak edota gizonezkoen nagusitasuna arlo publikoan (politikan, besteak beste) mantentzen dira; baina emakumeek lehen pentsaezinak ziren eskubideak (esaterako, autonomia eta ordezkaritza juridikoa) lortu dituzte. Antzinatean Vestalak emakumezkoen artean aurrerapauso esanguratsuenak zituzten emakumezko bakarrak ziren. Emakumeen bilakaera historikoan, beraz, nolabaiteko protagonismoa izango dute, etorkizunean praktikan jartzearen askatasuneranzko biderako adibideak bezala joka zezaketen eta.



## 7. ERANSKIN IKONOGRAFIKOA

1. irudia. *P. Cassius*-en txanpona: Errepublika garaiko denarioa (K.a. 55. urtea): Vesta (ezk.) eta Erromako Vestaren tenplu zirkularraren (*curul* eserlekua erdian, bozkatzeko ontzia ezkerrean eta *A(bsolbo) C(ondenus)* legenda eskuman) (esk.) irudikapenak, Vestalen epaiketei erreferentzia eginez.

Iturria: Takács, 2008, 82



2. irudia. Vespasianoren (69 – 79) garaiko urrezko *aureus*. Vespasiano enperadorearen aurpegia (ezk.) eta Vestaren tenplu zirkularraren irudikapena (esk.).

Iturria: Rüpke, 2007, 148



3. irudia. Flaviar aroko erliebea Vestalak irudikatuz (Palermo, Museo Archeologico Regionale).

Iturria: *Gallia*, 2014, 228



4. irudia. Antonianoen garaiko *Virgo Vestalis Maxima*-ren irudikapena (Erroma, Museo Nazionale, Palazzo Altemps).

Iturria: *Gallia*, 2014, 224




5. irudia. K.o. II. mendeko (117 – 138) Vestalaren buru erretratua eta orrazkera (Florentzia, Galleria degli Uffizi).

Iturria: *Gallia*, 2014, 226



6. irudia. Erromatar Errepublika garaian emandako espazio errituen taula kuantitatiboa. Erabilitako metodo guztien artean, Vestalaren *incestum* kasuena oso murriztua da eta datu ofizialetan oinarriturik, Errepublikan ez ziren zortzira helduko. Beraz, testuinguruaren arabera *ira deorum*-arekin amaitzeko bestelako bideak erabiltzen ziren.


Iturria: Aldea, Celada, 2010, 293





8. irudia. Vestalen kokapena Erromako Koliseoan. Ikuskizun publikoetan leku pribilegiatuaz gozaten zuten, gizartean paper azpimagarria zutela islatuz.

Iturria: [http://www.almendron.com/artehistoria/wp-content/uploads/distribucion\\_social1.jpg](http://www.almendron.com/artehistoria/wp-content/uploads/distribucion_social1.jpg)



■ Mujeres	■ <i>Paedagogi</i>
■ Esclavos (de pie)	■ <i>Apparitores</i> (ayudantes de los magistrados) (¿y esclavos públicos?)
■ Libertos	■ <i>Equites: seniores</i>
■ No ciudadanos	■ <i>Equites: iuniores</i>
■ <i>Pullati</i> (individuos con ropa oscura)	■ Tribunos militares & <i>XX viri</i> (magistrados jóvenes)
■ Pobres	■ Portadores de <i>corona civica</i>
■ Ciudadanos romanos nacidos libres	■ Senadores
■ <i>Mariti</i> (ciudadanos romanos casados)	■ Vestales
■ <i>Pueri praetextati</i> (niños con toga praetexta)	■ Tribuna presidencial
■ Soldados (¿y veteranos?)	

## 8. ITURRIAK

Aulo Gelio:

Gel. 1.12.1-8; 1.12.9; 1.12.13-14

Dion Casio:

Cass. Dio. 42.31.3; 54.24.2

Halikarnasoko Dionisio:

D. H. 1.76.3; 2.64.5; 2.65.1-2; 2.66.1; 2.66.2; 2.66.3; 2.66.4; 2.66.5;  
2.67.1; 2.67.2-3; 2.67.3-5; 2.68; 2.68.3-5

Tito Livio:

Liv. 1.3.11; 5.40.7-10; 5.42.1-2

Ovidio:

Ovid. *Fast.* 6.257-60; 6.263-64; 6.295-98

Plutarko:

Plut. *Rom.* 3.3-4; 22.1; *Num.* 9.10; 10.5; 10.6; 10.8-13; 11.1; 13.4; *Cam.*  
2.5-6; 21.1; 22.6; *Fab.* 18.3

Suetonio:

Suet. *Jul.* 1.2; 83.1; *Aug.* 44.3; 101.1; *Ner.* 12.4

Tazito:

Tac. *Ann.* 1.8.1; 2.34.4; 4.16.4; 15.41; *Hist.* 1.43

Valerio Maximo:

V. Max. 1.6; 1.7; 1.10; 6.1

Varron:

Varro, *Ling.* 6.17

## 9. BIBLIOGRAFIA

ALDEA CELADA, J. M., 2010, “Religión, política y sociedad: los *prodigia* en la Roma republicana”, *El Futuro del Pasado*, 279–293.

ALBERTI MANZANARES, P., 1987, “Mujer y religión: Vestales y Acllacuna, dos instituciones religiosas de mujeres”, *Revista española de antropología americana*, 155 – 196.

BLÁZQUEZ, J. M., 2011, *Historia de las religiones antiguas: Oriente, Grecia y Roma*, Cátedra, Madrid.

CANTARELLA, E., 1991, *La mujer romana*, Universidad de Santiago de Compostela, Santiago de Compostela.

DUBY, G., PERROT, M., 2000, *Historia de las mujeres en Occidente. La antigüedad*, Taurus Minor, Madrid.

GALLIA, A. B., 2014, “The Vestal Habit”, *CPh*, The University of Chicago Press, 222 – 240.

MAÑAS NÚÑEZ, M., 1996 – 2003, “Mujer y sociedad en la Roma Imperial del siglo I”, *Norba. Revista de Historia*, 191 – 207.

MARTÍNEZ LÓPEZ, C., 1988, “Virginidad – Fecundidad: En torno al suplicio de las vestales”, *Studia Histórica. Historia Antigua* 6, 137 – 144.

MÍNGUEZ ÁLVARO, M. T., UGARTE ORUE, I., 1995, “Una experiencia en un aula de Cultura Clásica: mujer y religión en Roma: las Vírgenes Vestales”, *Estudios clásicos*, 125 – 138.

ORIA SEGURA, M., 2010, “De mujeres y sacrificios: un estudio de visibilidad”, *Saldvie: Estudios de Prehistoria y Arqueología*, 127 – 148.

POMEROY, S. B., 1999, *Diosas, rameras, esposas y esclavas: mujeres en la Antigüedad clásica*, Akal, Madrid.

RICHARDSON, L., 1992, *A new topographical dictionary of Ancient Rome*, Johns Hopkins University Press, Baltimore.

RÜPKE, J., 2007, *A companion to Roman religion*, Blackwell, Malden .

SAQUETE, J. C., 2000, *Las vírgenes vestales: un sacerdocio femenino en la religión pública romana*, CSIC, Fundación de Estudios Romanos, Madrid.

SCHEID, J., 1991, *La religión en Roma*, Ediciones Clásicas, Madrid.

STAPLES, A., 1998, *From good goddess to vestal virgins: sex and category in Roman religion*, Routledge, London, New York.

TAKÁCKS, S. A., 2008, *Vestal Virgins, Sibyls and matrons. Women in Roman Religion*, University of Texas Press, Austin